

AUTOEBALUAZIOA

II. MODULUA: EREDU MONOKONPARTIMENTALA. BENA-BARNEKO PERFUSIOA

1. Farmako bat bena-barneko perfusioz administratzen denean, noiz lortzen da oreka egonkorra?
 - a) Perfusioa amaitzen denean
 - b) Kontzentrazio plasmatico terapeutikoak lortzen direnen
 - c) Perfusio abiadura eliminazio abiadurarekin berdintzen denean**
 - d) Guztiak okerrak dira

2. Bena-barneko perfusio batean, zeren menpe dago oreka egonkorra lortzeko behar den denbora?
 - a) Eliminazio konstantea**
 - b) Banaketa bolumena
 - c) Perfusio abiadura
 - d) Guztiak okerrak dira

3. Eliminazio konstantea aldatzen bada, zein parametrotan ere ikusiko ditugu aldaketak?
 - a) Bakarrik C_{ss}-an
 - b) Oreka egonkorra lortzeko behar den denboran eta C_{ss}-an**
 - c) Bakarrik oreka egonkorra lortzeko behar den denboran
 - d) Guztiak okerrak dira

4. Karga dosia:
 - a) Oreka egonkorreko kontzentrazioak aldatzen ditu
 - b) Oreka egonkorreko kontzentrazioak eta oreka egonkorra lortzeko behar den denbora aldatzen ditu
 - c) Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora aldatzen du**
 - d) Ez dauka inolako eraginik oreka egonkorreko kontzentrazioetan edo oreka egonkorra lortzeko behar den denboran

5. Anestesiko bat bena-barneko perfusioz administratu nahi dugu 20 mg/h abiaduran. Ke $0,1 \text{ h}^{-1}$ da eta V_d 10 L. Karga dosia kalkulatu berehala $2 \mu\text{g/mL}$ -ko kontzentrazioa lortzeko

- a) **20 mg**
- b) $20 \mu\text{g}$
- c) 10 mg
- d) 40 mg

6. Gaixo bati 2 mg/h abiaduran antibiotiko bat administratzen diogu 2 astez. Perfusioa amaitu baino lehen kontzentrazio plasmatikoa $10 \mu\text{g/mL}$ -koa da. Zenbatekoa da argitzapenaren balioa?

- a) $200 \mu\text{g/h}$
- b) **200 mL/h**
- c) 150 mL/h
- d) 210 mL/h